

1979-XI-30

Donostian, Udaletzeko batzar aretoan, 1979.eko Azaroaren 30ean, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, J. San Martin, J. M. Satrustegi, eta A. Zavala euskaltzain jaunak; P. Altuna, X. Aramburu, M. Atxaga, I. Goikoetxea, P. Charritton, J. M. Etxaburu, J. Fz. Setien, X. Garmendia, J. Goikoetxea Maiza, J. Intxausti, X. Kintana, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, L. M.^a Mugika, A. Zatarain, eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, P. Larzabal eta J. M. Lojendio jaunek ezin etorria adierazi dute.

Alkain, Donostiako alkate jaunaren ongietorriarekin hasi da batzarra. L. Villasante euskaltzainburuak eman dio erantzuna. Bere lanbideetara joan-beharrak agertu du, gero, udalburuak eta Euskaltzaindikoen artean egin da bilera.

ERABAKIAK

Bi egunez bildu dira euskaltzain osoak, Donostiako Diputazio jauregian, Bergarako gaiei buruz azken erabakia hartzeko. Bezpera arratsaldean, H letraren zerrenda osoari begiratu zehatza eman zitzaion, eta berdin deklinabidearen proposamenari ere.

Egun, berriz, azken punduren batzu eztabidatu ondoan, isilka betetako txartelen bidez, bozketa egin da.

a) *Deklinabidea*. A. Irigoyen jaunak aurkeztu du deklinabidearen batzordeak gertatutako proposamena. Hamabi euskaltzain oso egon dira une horretan. Davant eta Larzabal euskaltzainek Haritschelhar buruordeari eman dizkiote, idatziz, beren botzak. Iratzederrek, halaber, Lafitte-ri. Aho batez onartu du Euskaltzaindiak batzordearen proposamena, boto zuri bat izan ezik.

b) *H letraren arazoa*. Batzordeak jasotako ohar guztien orraztapena Ibon Sarasolak egin dio Euzkaltzaindiari. Azken puntuak ikusi ondoan egin da bozketa. Gai hau mahai gainean zegoela, sartu da A. Irigaray jaunna, eta berak ere bozkatu du. Hamasei txartel ziren, beraz, oraikoan. Hauetatik hamahiru baiezoak, eta zuri beste hirurak. Beraz, zerrenda eta oinarriak Euskaltzaindiaren eritzizat onartuak gelditu dira.

Krutwig euskaltzainak adierazi zuen, ez zegoela aukeztutako lanaren aurka, baizik eta gai horretan beste ikusmolde bat zuela berak. Horregatik eman zuen zuri.

c) *Alfabetoko letren izenak*. X. Kintanak aurkeztu zuen lehen proposamena, gero A. Zatarainek egindako zenbait zuzenketarekin bateraturik ekarri da, nahiz eta azkenan zenbait puntutan osoki batera ez etorri. Letra bakarkakoan zerrenda aztertu du oraikoz, eta letra hauen izena bakarrik; ez balioa. Bozkatu eta onartua izan da proposamena.

Argitalpena. Bergarako batzar osteko erabaki eta agerpen guztiak liburuskara batean argitaratzeaz hitz egin da gero. Lehen-bait-lehen egiteko gelditu da. Honako lan hauek sartuko dira: Euskaltzainburuaren hitzaurrea. Bergarako adierazpena. Adierazpenean agindutakoa betetzeaz. Kontsonante busti-palatalen grafia. Erakusleen formak. Deklinabidea. H letraren ortografi arauak eta hitz zerrenda. Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak. Euskal alfabetoaren letren izenak.

Euskaltzaindiaren agerpenetan, Hezkuntza ministeritzari egindako eskaria, "Euskal Herri" hitza ez baztertzeaz, Nafarroako euskararen egoera. Azkenik, batasunari buruzko bibliografia.

DAGOZKIEN BATZORDEEN AZALPENA

Euskera aldizkariaren batzordeak hurrengo zenbakiaren aurrelana egin duela adierazi du. Lanen hautapena eta programaketa ikusi ondoan, inprimategirako omen dago.

Ondoren, J. A. Letamendia eta J. L. Lizundia, IX. Biltzarreko Hizkuntza eta Antolakizun Batzorde idazkariek, datorren hilaren 20, 21, 22 eta 23an, Arrasaten, Sebero Altuberen omenez egingo den Biltzarraren egitaraua eta xehetasunak azaltzen dituzte.

TXOSTENAK

J. A. Arana Martija jaunak, Mexikon XVII. mendean argitaratutako liburu batean agertzen den euskal zatiaren berri eman du bere txostenean. Libuaren izenburua, hau da: *Vida del Apóstol Santiago el Mayor*.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Berehala, *Euskal Herriko Udalen Izendegia* aurkeztu da, Gasteiz, Iruñea eta Durangon eginaren antzera.

Euskaltzainburua
Luis Villasante

Idazkaria
J. M.^a Satrustegi